

Euskal mugimendu feministaren gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz gogoeta eta eztabaida egingo dute gaurtik larunbatera bitartean Leioako kanpusean izango diren Euskadiko III. Topaketa Feministetan. 'Mugarik ez emakumeontzat' lelopean egingo diren jardunaldiak emakume orori daude zuzenduak.

## Orainaz gogoeta egin, gerorako euskarriak finkatzeko

Ostegunean Euskadiko III. Topaketa Feministak hasiko dira Leioan 'Mugarik ez emakumeontzat' lelopean

GORANE AGIRRE / BILBO

Euskadiko lehenbiziko Topaketa Feministak frankismoa bukatu eta gutxira —1977. urtea— ospatu ziren eta jardunaldi haiekin euskal mugimendu feminista eratu zen. Zazpi urte geroago egin ziren bigarren jardunaldiek mugimendu feminista emakume gazteengana zabaltzeko balio izan zuten.

Hamar urte hauetan emakumeen egoeran eta mugimendu feministan bertan ere aldaketa ugari bezain garrantzitsuak izan dira. Hori dela eta, euskal emakume taldeek III. Topaketak egitea erabaki zuten, «guztion artean» mugimendu feministaren egungo egoeraz gogoeta egin eta etorkizunaz eztabaidatzeko.

III. Jardunaldi hauek 'Mugarik ez emakumeontzat' lelopean ospatuko dira. Izan ere, antolatzailleen arabera, «emakume guztiei beraien bizi proiektua garatzeko dei egin nahi diegu. Eta era berean, egun, emakumeok autonomoak izateko, gutaz eta gure bizimoduaz libreki erabakitzeke zutik dirauten oztopoen kontra jotzeko gure borondatea azaldu nahi dugulako».

Bihartik larunbatera egingo diren Topaketa hauen helburuen artean honako hauek aurki daitezke: hainbat arlotan lan egiten duten talde feministen esperientziak jakitea; emakumeen eta bereziki mugimendu feministaren egoerari lotutako gaiez gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko baliabide kolektiboak eratzea; euskal talde feministen eta emakume elkarten arteko loturak sendotzea; emakumeon partaidetzak politikan eta gizartearen aurrera egiteko euskal mugimendu feministak duen garrantzia azpimarratzea eta etorkizuneko eginkizun berriei aurre egiteko emakumeak prestatzea.

**BI AZTERGAI NAGUSI** III. Topaketa hauen bi gai nagusi jorrratuko dituzte, 'Euskal mugimendu feministaren egoera eta perspektibak', atal honetarako hamabi txosten aurkeztu dituzte eta 'Emakumea eta boterea', honetarako bost ponentzia egin dituzte.

Lehenbiziko alorrari dagokionez aurkeztutako txostenek honako gaiak buruzko planteamenduak egiten dituzte: nork osatzen duen mugimendu feminista; instituzioek mugimendu honetan duten eginkizuna; emakumeen aniztasunaren eta noritasunaren arteko eztabaida; ez-



Talde feminista guztiak bilduko dira Leioan etorkizunari buruz hitz egiteko.

MARISOL RAMIREZ

## Emakume guztiek duten zita

G. AGIRRE / BILBO

Bihartik larunbatera bitartean Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako kanpusean izango diren Euskadiko III. Topaketa Feministak «emakume guztiei» zuzenduta daudela azpimarratu dute antolatzailleek. Izan ere, jardunaldi hauetan egungo egoeraz, mugimendu feministaz eta emakumeon etorkizunaz «guztion arteko» eztabaida egin nahi dute.

Bihar goizeko hamaiketan III. Topaketen aurkezpena izango da eta ordu erdi geroago, 'Mugimendu feminista zer da?' gaiari buruzko mahaingurua egingo dute. Bertan, Hego Euskal Herriko hainbat talde eta elkartetako emakumeek eztabaidarako lehenengo urratsak finkatuko dituzte.

Arratsaldeko saioari, berriz, 'Mugimendu feministari buruzko azterketa eta perspektibak' gaiari buruzko ponentziak aurkeztuz emango diote hasie-

ra. Txostenen edukia aurkeztu ahala, taldekako eztabaidak egingo dituzte eta, ondoren, batzarrean guztion artean eztabaidatuko dute.

Ostiralean, tailer eta eztabaida paraleloak izango dira; bertan, emakumeekin lotutako 23 gai jorrratuko dituzte, hala nola, ekofeminismoa, biolentzia sexista, emakumea eta tortura, sexu ziurra, politika feminista hezkuntzan, emakumea eta sexualitatea, lan banaketa, emakumea eta kartzela, demografia, baloreen birdefinizioa feminisotik abiatuz eta auto-defentsa.

Egunari bukaera emateko, gaueko bederatzietan Bizkaiko hiriburuko Arriaga enparantzan kalejira egingo dute.

Larunbat goizeko mahainguruan 'Nondik lortu aldaketak emakumeontzat?' gaia landuko dute Carmen Elejabeitiak, Lidia Falcon feminista historikoa eta Begoña Muruagak.

Arratsaldean, berriz, 'Ema-

kumeak eta boterea' gaiari buruzko ponentziak aurkeztu eta eztabaidatuko dituzte. Gai honetaz aurkeztu dituzten bost txostenetan, emakumeek bizi-tza pertsonalean boterea bizi-tzeko era ezberdinak eta botere publikoaren inguruan emakumeek duten planteamenduak aztertuko dituzte.

Auzi honetan, talde guztiak bat datoz emakumeek bizi-tza pertsonalean duten boterea gaitasun naturala dela eta egunero bizitzan emakumeek botere hori modu ezberdinetan erabiltzen dutela onartzean.

Euskadiko III. Topaketa Feminista hauek larunbat gauean Bilboko Casilla kiroldegian egingo den jaialdiarekin amaituko dira.

Topaketetan izena emateko epea oraindik zabalik dago, eta bertan parte hartu nahi duten emakumeak Bizkaiko Emakume Asanblada edo Lanbroa kolektiboarekin jar daitezke harremanetan.

berdintasunaren eta berdintasunaren arteko diskusioa eta etorkizunari begirako erronkak.

Mugimendu feministaren osaketari buruz aurkeztutako lanaren artean iritzi kontrajarriak badaude ere, guztiak bat datoz mugimendu hau anitza eta zabala dela eta, bertan «emakumeen zapalkuntzari buruzko hainbat azterketa egiten dituzten talde feminista guztiak elkarrekin bizi direla», adierazterakoan.

Lanbroa kolektiboaren ustez Euskal Herriko esparri feministan lau talde eratu dira: organizazio feministak; emakume talde autonomoak; bere buruak feministatzat ez dituzten giza elkar-teetako emakume taldeak eta azkenik, emakumei dagozkien gaiak jorrratzen dituzten erakundeak.

Jardunaldi hauen antolaketa-tik kanpo gelditzea erabaki zuen Egizanez, bestalde, hiru ildo ideologiko bereizi ditu euskal mugimendu feministan: sexuen arteko kontraesana faktore totalizatzailetzat hartzen dutenak; berau ez totalizatzailetzat hartzen dutenak eta borroka feministaren eraldaketa proiektu